NAFAR - IZKUNTZAN ORRIA

GURE AMA LURRA

ORBAIZETA, IRATI ONDOAN



Orbaizeta. — (AIDA argazkia).

Arburua mendiaren azpian, Berrendi'ren aurrean, Irati ibai ondoan dago. Aezkoako erri eder au. Aldapan daude etxeak, goitik asita ibai ertzeraino. Eliza erdian gelditzen da. Etxeak iru kaletan biltzen dira; eliza ondoan San Pedro kalea, gora mendi aldera Mendikoa ta erri azpian ibai ondoan Rotxapea.

Erritik lau kilometrora, muga aldera ba dago beste auzo koxkor bat, Orbaizetako Ola Ondoa izena duna eta andik eskubira beste bat bizpairu baserriekin Larraun izena duna. Azkeneko ontan, gaineko aldian ba daude bi baserri oso politak, bat Zabala emen Zumalakarregui'k egonaldi bat egin zuan eta bestea Mendiondo, biak Mendilatz egalean.

Aspaldi, orain dala berreun urtetik joan dan gizaldi arte, garrantzi aundiko burni ola zan emen. Artilleriko bonbak egiten zituzten, baita beste gaiak, gero Trubiara eramateko. Napoleon gerra ondorean dana berritua izan zan. Oraindik agiri dira orma zar galantak. Eliza garai artakoa da, gaur belarra gordetzeko daukatena. Eliza berria etxe baten sarreran dago.

Frantzi'ko iraultza garaiko gerratean ta gero karliste'nean, gudako tresnak egiten ziralako ola zarra ontan, erri osoa oso ondatua izan zan.

Erri onek inguru zoragarriak dauzka; ezaguenena, Irabia'ko urgeldira dijoan bidea, Oriona mendi ondotik igarota. Udazale geienak bide au artzen dute. Arrazoia ere ba dute, Irabia'ko inguruak ikusgarriak diralako.

Beste ateraldi eder bat ba dago, oso gutxi ezagutzen dana, bertakoak ezik. Ola zar auzoko elizaren atzetik ateratzen da bide mugaraino dijoana zuzenean. Txangoa erreka ondotik dijoan galtzara au oso zarra degu ta gainera Auñamendi'ko lepo bidetan aldapa gutxiena dau kana, larre toki bikaina gainera. Basoa igaro ezkero, Azpegi lepora ateratzen da bidea. Kromel galantak ikusten dira bertan; lau eskubitan ta bat ezkerrean. Ba daude an urruti joan gabe dolmen batzuek ta ezker aldera artzai txabolak zurezko tellakin. Andik dorre zar baten billa Urkulu mendi tontorrera igo nintzan. Dorre zar ori ikusi nai nuan erromatarren garaikoa ote zan jakitearren, Barzelonako Maluker era kasle jaunakezd aladio.

Larre xee ta zabal artan ardiak millaka dabiltz. Euskalerri osoan ez dut ainbeste bei te ardi batean ikusi. Azpegira jetxi ondorean, mugaraino Idopil izeneko tokiraino urbildu nintzan. Oñutzik joan leike ain gozoa da belarra. Muga ondoan illobi zar bat dago. Aspaldiko larre tokia dala ikusten da. Larre toki auetan dabiltz Orbaizetako ogeita bost artalde ta bost milla ardi. Bei gorri gorriak, egokiak antxe daude; arraza pirenaikoa, Diputazioari esker, asko indartu diranak. Joareak lepoan, zurazko kollareakin ezarriak zituzten. Artzaiak egiten dituzte eta «kanabla» izena ematen diete.

Orbaizeta errjko eliza, arrizkoa, ederra bizpairu zatitan egina dala egertzen da. Erretaula emezortzi garren gizaldikoa du. Goian Amabirgina oso polita, eskubian Santa Bárbara, San Pedro eserita erdian. Sagrario ondoan ba dauzka bi iduri, San Migel ta San Juan, platereskoak, zoragarriak. Elizaren sapaia amasei garren gizaldikoa da nere iritziz. Bataio pontea erromaniko gotiko bitarteko garaikoa. Emengo gazteak lasaitzeko ba daukate eliza azpian frontoi itxia ederra. Eliza atzeko aldean berriz ba dago «horreo» txiki bat. Aezkoan —garaia— deitzen diete.

Mendi tontor batean ba daukate maite duten Donestebe'en baseliza. Frantziko iraultza garaian erre zuten. 1945 garren urtean Lorentzo etxekoak besten laguntzakin altxa zuten berriz. Urtero igotzen dira meza entzutera ta jota txapelketa egitera. Asko maite dute erri ontan Donestebe; norbait iltzen danean, Dona Mari, San José ta Donesteberi otoitza egiten diote.

Danetara ba daude 74 sendi, errian 60 ta bi auzoetan 14; 364 bizilagunekin. Lur sagarrakin bizi modu polita ateratzen dute, gainera artalde ta abelgorriak dituzte. Aragi ta gasna asko egiten da. Mutillak ba daude basoetan lana egiten dutenak, besteak Iruñara dijoaz lan billa. Erriak, ere, urtero, milloiterdi pezeta ateratzen du basotik. Aspalditxo, neskak oñetakoak josten lana izaten zuten. Orain lana ori ez dute egiten.

Euskerak zer? Adiñako danak ba dakite. Elizagarai etxean egon nintzan eta dana euskeraz egiten genun.

Bi aiton amon zarrengana joan nintzan berri billa. Konde etxeko aitona bat, José Egurza; larogei urtekin, gazorik oian zegon. Zeinen euskera garbia egiten duan.

Bera oroitzen da nola amabi urte zitula utzi zuan apaizak, itzaldiak euskeraz egiten. Kritau ikasbidea beti erderaz ezagutu zuan. Berak 15 urte zitula, azken garizuma euskeraz egin zala. Gaur oraindik gizon onek pozik entzuten du irratiatik Arantzazuko euskal meza. «Ele berdinak entzuten ditut'dio berak. Asko galtzen dute emengo gazteak euskeraz ez jakiteakin. Erriko 25 artzaiak urtero Ipar aldeko Euskalerrira dijoaz. An ikasten dute ongi euskeraz Konde etxeko aitona gaztea zala Linzoain'go txistularia jaietan etortzen zan eta berak lau urtez tuntuna jotzen laguntzen zion.

«Ola-ondoa» Auzoz (Orbaizeta). — (AIDA argazkia).

Amona bat ere ikusi nuen, Felisa Egurze Jakue. Bere billobei euskeraz erakatsi zien. Bainan eskolan asterakoan, «burla egiten zien euskera elekatzen zutelako». Ori aipatzeakin bakarrik, mina artzen zuan.

Gerra Aurretik, bertako jantziekin ateratzen ziran gazteak, Eguberritan euskeraz kantari. Geroztik aztu dute kanta zarra ori.

Akeneko gerra ondorean, oso giro txarra sortu zan. Eltzetzo, soldadu ta baso mutil arrotzak euskera gaizki ikusten zuten; bertakoak beldur aundia jakina.

Elizan berriz aspaldi eman zioten ostikoa euskerari. Euskerazko kantak ez omen dituzte bein ere ezagutu.

Oraingo apaiza ez da euskalduna, ezta ere naparra, kastellanos baizik (Avila'koa). Ikasi ditu itz batzuek euskeraz. Esaten zidan: «Iltz olek enzuten dituztenean, biotza zabaltzen zaie».

Principe de Viana, euskal aldizkaria banátzen dio. Batek ala zion: «Iñork ez du iraburtzen». Itxaro gabe, zoragarri bat izan nuen. Bi etxetan billatu nituen egitazko euskaldunak, oso ondo mintzatzen diranak. Bat alkatearen etxea, Merino etxea. Emen aur txiki guztiak ba dakite ondo asko. Bestea Lorentxo etxea. Emen 17 urteko neska batek, Lurdes Zabala'k Zabalegi nekazari eskolan bi urte egin ditu. Maite du Euskalerria, euskera batez oro. Bere aita pozik dago. Etxea ortik ateratzean, nion: «Nola leike orrelako neska euskelduna emen uztea, aztua bezela? Uste dut Aezkoako muturrean, Auñamendiko zulo ortan orrelako neska bat, oso kapitala aundia dala Euskalerriarentzat. Lagundu ezkero, neska onen bidez, Orbaizetan euskera berriz pixtu leike.

Nafar ikastola batek artu bear luke neska ori bere gain, Diputazioaren laguntzarekin eta orrela bere eziketa egin. Ezin da gero, ain errax esan orrelako tokitan euskera galdu da. Ta euskaldun jator bat dagonean ezin zaio utzi ez ba lego bezela Nork eman dezaioke aukera bat euskerari Orbaizetan?

Etxe batzuen izenak jaso ditut. Ezin ukatu nortasun aundikoak dirala: Arriola, Alzat, Jokue, Azpitx.

LATXAGA

EUSKALERRIAN BARNA

Mikel Arbea'ren euskal diskoa

Mikel Arbea Iruñeko semea dugu. Kantari gazte ona da. Orain lau euskal kantuz osotutako disko bat atera berri du.

Euskal disko hontan grabatuak dauden lau euskal kantuak hauek dira: **EUSKAL MENDIETAN, BAKARDADEA, HERRI MAITEA eta EREITEN DUENA.**

Mikel Arbea abots on baten kantaria da eta uste dugu bere disko honek salmenta haundia izanen duela.

Arbearen nahikeria da bere kantuen bitartez, musikaren bidez alegia, bere esanaiak agertzea. Honela dio berak:

«Nere kantuen musika, neri toresgarri iruditu zaizkidan ideien eta sentimenduen zerbitzuan egina da. Nere kantuek eta konposizioek baliorik badute, musikari baino gehiago zor diote musikaren bidez ematen den esanahiari eta idelari...».

Donostiko EDIGSA etxeak izan da euskal disko interesgarri hau argitara eman duena. Iñaki Beobide jaunak grabazioak bere gain izan ditu. Musika denda guzietan salgai dago. Eun ta amar pezetako balica du.

Belloc-eko «Notre Dame» Abatetxeko Abade Nagusi berria

Belloc-eko Abatetxea Ipar aldeko Euskal Herrian da, Laburdi herrialdean. Abadia, edo Abatetxe honek badu bere izena bai Euskal Herrian, bai Frantzia guzian eta baita Mundu guziko katoliko misioetan ere. Gure Euskal Herriari dagokionez Erreijio Katolikoaren gauzetaz gainera, euskerari eta euskal kulturari buruz egiten duten lanak oso txalogarriak dira. Abatetxe honen **Aita Jean Pierre Inda** ogei ta bi urtetan Abade Nagusia, Burua, izana da eta orain pentsatu du ainbeste urtez izan eskeroz bere tokla esku gazteagoetan uztea denen onerako.

Belloc-eko Praileek **Aita Xabier diharce** Abadia honen Abadea hemendik aurrean izateko izendatu dute.

Ioan berri den Martxoko ogei ta batgarrenean (1972-3-21-ean) Belloc-eko Notre Dame Abatetxeko Elizan Baiona'ko Jaun Apezpikuak Aita Xabier Diharce Abade berri benedikatu zuen; Benito Sainduaren egunean alegia. Pozez beterik berri hau zabaltzen dut zergatik gure txit exaguna den Aita Diharce balio haundiko gizona bait da, euskal poeta ezin parekoa, euskal Akademikoa eta euskaltzale zintzo eta jatorra, Euskal Herri guzia aunitz maitatzen duena. Hemen Nafarroan oso ezaguna eta maitea da.

Zorionak biotzez.



«Euskal Meza» Iruñan Erramu igandean

Datorren igandean, Martxoko 26 egunean (Erramuko igande) Iruñeko «Gayarre» Teatroan goizeko amaika t'erditan **«Euskal Meza»** berri bat izango da. Aste Sainduaren lehenengo eguna oso egokia da «Euskal Meza» berri hau Iruñeko jendeari ezagunerazteko.

Urrengo igandean ezagunerazi den «Euskal Meza» hau oso famatua da. Aita Barturen izan da bere sortzaile eta egilea.

Abenduko lehen «euskal orri» «Euskal Meza» honen **berri** ak eman nituen. Orain Iruñeko semeek aparteko era izaten dugu entzuteko.

«Euskal Meza» hontan Euskal Herri guziko soinu, musikatresna, abotsak, bertsolariak eta dena azaltzen dira. **«Euskal Meza»** gainera Oberena Elkargoaren dantzariak, eta Chantrea'ko kantari ariko dira.

Ikusgarria benetan izango da eta uste dugu Iruñeko herriak aurpegi on eta goxoa jarriko diola.

IKUSLE

AXULAR SARIA

LAGUN ONA NUEN NIK

Nik banuen behin... begiretze iluntsu bet; baña ezagutzen on ona zuen gaizoak. Etzuen gizonen ezagutzen bezalakoa; ez; abere ezagutze argi bet zeuken buruen. Beti beti adiskide leyala nuen; Inoiz nitez aspertzen etzena, bide luean ta bide llaburrean, urie ari edo iruskie ayera, otzak kazkaraka ta beroakin atsankutue egunez nola gauez, nik beti nauken bera yarraikizele. Xakurre zen. «Txurtxil» eman ginion izen bat, zer ematen ginion ohartu gabe gu; ta mundu guziek len hunekin ezagutzen zuen. Erratzun etzan hunen yabe zenik bertze atik ere. «Dik», «Bat», «Potxo», ta holakoak bai baziren; baña «Txurtxil» batto ere. «Txirtxil» katuekin ere adiskide zen, ta hay gauz arrigarrie da zakur batentzat; «Kattalin» ta «Kattaxuri» ganerako beren yendaki guziekin batean, nere xakurrekin piletzen ziren, ta haren berokire bilduek loteratzen ziren; maiz aski yaterakoan ere etziren xakur narekin asertzen; elkarrekin bai puztenak arro-arro «Fruit» te atzapar elkarri egiterano. Eramankizun aundikoa zen gañera ta bakezale utse.

Azkenera ahatik arron bitxi yarri zitzaikun gaizoa. Buruen pixke bat ukitzea aski zuen bereala saingeka asteko. Zer ote zuen urrikalgarri harek? Bere bizitzen emaneko azken atsikialde Maiteri eskeniko hure izen zen. Ederki oroitzen naiz, nolako karraxie halaere Maiterena.

Bertze guzientzat prestu prestue zen egi puske heriotzerañio. Ilergi-zuri zagonean «au, au, au» ilergieri ari zela uabaitzen ginuen astronautekin harat gan nai balu bezala. Arrikoaldie betzuk hartue zen nik ezdakit zertaz.

Gaixo «Txurtxil», nik zu ain maite ta zu ere hil behar...

JOSE NIKOLAS BALLARENA. ERRATZU, 10 urte.

JENTILEN KONTUA

urdinen bizi zian gizon ikaragarri aundiak: jentilak. Aitziberren, San Migel, San Juan eta San Pedron bizi zian. Ebein pilotia izaten zan arrizkua eskutokiekin. **Gaztaleko** aitzaren puntan jantilen sukaldia dago.

Kanposantua ibiltzen zain San Pedron. Ermitan zeen jentilain ezurrak.

Jentilak gosiek gartatu emen ziren, batere janik gabe, eta urdindarrak emen ziotela jana, eta gero Sarabeko dermiyua urdintarrendako eman zutela.

Urdingo iturri zarreko arri losa audiyek jentilak ekarrita emen dira; aitak eta alabiek bizkarrien ekarri ta. Bidien eldu ziala alabiek esan zeala:

—Aita, itxaan pixka bat.

Eta aitak erantzun zeala alabai:

—Zer da itxaana egitia?

—Lurrien autzi eta piskatien egotia.

—Ori jakin ba nau nik bi losak neronek eremango nituen.

Dioni Pozueta eta bere lagunak.

Urdiain.

UDABERRIA. - Aldizkariak irakurtzen

Noizean behin, gure lerro hauetara ekartzea komeni da, beste euskal paperetan agertzen diran artikulo jakingarri zenbait; bereziki HERRIA Baionako astekaritik, huntan Nafarro - euskara bezalatsukoa erabiltzen baidute, eta funts handiko eta ikuntza garbiko idazlariak aurkitzen.

Udaberrian sartu berri gara eta iduri luke denbora ederra gaiñean dugula Euskalerrian ere, xoragarria plantatuz gure xokoa; baina edertasun horren pean, griñak eta arrankurak estaltzen dira, **Dirassar** idazle trebeak aipatu paperean, behin esan zuen bezala. Gure lankidearen gogoetak, Ipar - euskalerrirako daude bereziki, baina Nafarroako ere on direla iduri zaigu.

Iruñe huntan berean, euskararen alde Eskolak idiki dira, aldizkarietan euskera-sailla, duela urte batzutik unarat sartu dira, egunkari huntan bezala. Egiazki, horiek guztiak aurrerapen handiak dira, baina euskal papera artze, duten euskaldunetatik, zenbatek irakurtzen duten zerbait, jakin nai litzake.

Eta Iruñean berean, orain ogeita amar ta urte baiño, euskara guttiago entzuten da segur; hemengo euskaldunek beren mintzaira agertzeko erabe dutela ematen du.

Huna zer zion, aipatu hazpandar idazle zorrotzak: Gure bazterrak xarmagarri dira, bainan euskal seme eta alaba aunitzek hemendik urrundu behar, laneko segida baten menturarik ez delakotz... lantegi berriak behar ginuzken denboran, xaharrak esten ari. Lan-eskasaren edoi beltzak estaltzen ari gure Herria. Nekazari aunitz beren etxalden geroaz artean griñatuak; eta zenbat Saletxe ezdira lanetan, mende hunen ara berrieri ezin iardokiz; zenbat ofiziale-enpleatu gisa berean gogoetatuak?

ZERUA LANOTSU

Horiek alde batetik; bestetik gure euskal izaitea ahultzen ari; bizkitartean, debaldetan dugu euskaldun izena begiratuko, euskal izaitea ukatzen badugu.

Gure mintzaira galtzen ari, gure euskaldungoarean funtsa ttipituz joaki. Bazterretan, gure nortasunaz axola guti; funtsean, bestek nola izan dezakete holako axolarik, guhar girelarik sail hortan hain ezazol eta uzkur? Bai, euskal geroraren zerua, lano ilunez brokatua ikusten dugu...

ETSI BAT HARTUZ...

Gure inguruan batzuk diote; **beti zerbait bada, lehen ere goiti beiti franko izan dira...** edo berdin; **...bestetan ere badute ios-aala urratu, ezgara gu gaizkienik...** edo oraino **...guk deus ezdezakegu, gauzak eldu diren bezala artu behar, bestenaz ezpaita makur handiagorik baizik...** Beste batzuk diote; **Euskalherria eri da eta erigisa behar da artatu. Parisen batira kider nausiak eskuetan dituztenak, guk sendagailu baliosak heienganik erdietsiko ditugu.** Bainan Pariseko manatari handiek ele ederra dute aisenik ematen, eta ele ederrek gure gaitza ez kentzen.

Eta hemen tokian ditugun haien ordezkariek, xede oberenekin ere, gure eritasunaren araberako sendagailurik ez daukute segurtatzen ahal.

JAIKI, JAIKI...

Ez gaiten sobera heieri mendeka; gure etsairik tzarrena gure baitan dugu; guhauren epeltasunak dauku kalterik handiena ekartzen; guhauren lotsak ematen trabarik pizuena. Gure arteko tira-bira ergelek daukute makur izigarriena egiten. Eztabaia eta asarre ergel horiek, Pariseko jaun handien jokoa egiten dute, bainan guretzat deus onik ez.

Euskal zerua ilun dago eta bizkitartean ezgara lotsatu behar, ezdugu etsitzeko eskurik; gure lotsak eta gure etsipenak baitute preziski zerua iluntzen. Euskaldunak euskaldun gisa biziko gara, egiazki hala nai baldin badugu; gure bizinaia sanoki erakusten badugu, zerbaitetara elduko gara.

Iratzar gaitezin beraz, atzar tenor deno; mundu zabalean ikus dezaten ezdela gaur euskal izaitearen hil mezpera, bainan bai eskual udaberria baten abiadura. Jaiki, jaiki, euskaldunak, argia ezbada oraino zabala. Zerua lanotsu da, bainan edoi itsusi horiek oro, gure indarrak barreatzen ahal ditu. Zinez, hala nai badugu segurik.

Bazterra berritzen ari da, berria hor da, **jaiki, jaiki, etxenkuak...** gau beltzari ez beha, bainan bai izarreri...

A. APAT ETXEBARNE

Iruñean Euskaldunentzako Euzkerazko Eliz - Lana

Orai dela urte batzuek, Iruñean, Eliz aldetik, euskeraz lan piska bat egiten asi zen. Gauzak onerat eman zuten, eta ala, gaur, Jai egunetan lau Meza euskeraz, baditugu.

Ori zerbait izanik ere, alegia, iñundik ere ezda askl. Elizan lana ezda Meza bakarrik bukatzen. Elizak, beste gauz asko baditu kristauen onerako egin bearrak:

Juan diren urte otan, gauz ontan lanian ari diren apaiz eta erriko batzuen iduria entzunik, eta baita ere, Iruñako Apaiz-buruen baimenarekin, gure Gotzai Jaunak, Eliz lan unetan, aurrerapen bat ematia erabaki du, beraren bearra berretu dela ikusirik.

Orretarako erabaki du, alde batetik Eliz serbitzuak berretzea eta bestetik, Eliz barrutiko lanetan obeto osatze bat.

A) ELIZ SERBITUAK BERRETZEA

Orai artio, Mezako lana bakarra egiten da. Sinisten dun guztieri adierazten zaio, gaurtik aurrera, beste edozein Erri-elizetan bezelaxe, nai dituzten beste gañerakoak ere, emen eskatzen al dituztela: **Bataio, Lenengo Jaunartze, Ezkontza, Ilkizunak, gaisoen laguntzak, eta abar... Baita ere Sakramentu oien prestaerak etxetan, gaur Elizak oitura duen gisara.**

B) ELIZ-BARRUTIKO LANETAN OBETO OSATZE BAT

Orai artio, lan au, beste lan askotan dabiltzan apaizak egiten dute. Emendik aurrera, Bikal-aldiak, lan au, arraso bere gain artzen du Euskal-aldeko Ordezkariaren eskutik. Onek billatuko ditu, lana berretu alian, denboraz biarko diran apaizak.

Gauzak obeto joateko, lan ontan geina sartuak diren apaiz eta erritar batzuekin Batzarrea egingo da. Eliz lan unetan ardura duten talde guzien ordezkoak Batzar onetan biltzea, bearrezkoa da. Orrengatik, lein bai len, ikusiko da nola erditxi leiken, alik eta obetuena, erri talde guzien iritxia.

Bitartean, mementoko Batzar bat, bitarteko lanak egiteko, berezi da.

Zerbait Eliz serbitzu nai duenak, deitu: **Urrutizkiña 231976.**

Bertan, egunero, arratsaldeko 8'tik 10'tara, denan delak artzeko neskatxa bat zai egongo da.

Berdin joan nor bera lan-toki edo «despatxo» ortarat, ordu oietan beretan **(González Tablas, 6-1.°).**

Iruñako kristau euskaldunen artean, Eliz lan ontan ematen den garrantzi aundiko aurrerapen onek, dakarrala berekin, egizko batasuna eta sinismen bizkortzea.

Iruñean 1972'garrenekо, martxoan.

Euskal-aldeko Gotzaian Ordeskariak,

Irazoki'tar Juan Bautistak



Hace ya unos años que comenzó una pastoral en euskera para los «euskaldunes» en Pamplona. La experiencia ha resultado positiva, y hoy tenemos la realidad de cuatro Misas que se celebran en euskera en la ciudad, los días festivos.

Pero a todas luces esto resulta insuficiente, porque no pasa de una mera celebración cultual, sin otra proyección ni atención pastoral.

Escuchados los sacerdotes y seglares interesados en esta pastoral durante estos años pasados y recabado el consentimiento de los señores Arciprestes y Secretarios de los Arciprestazgos de la ciudad, el Arzobispado de esta Diócesis ha creído conveniente dar un paso más en esta atención pastoral, teniendo presente la creciente necesidad de la misma.

Por eso se propone darle, por una parte, una mayor amplitud de servicios pastorales, y por otra, una mayor integración en la Pastoral Diocesana.

A) UNA MAYOR AMPLITUD DE SERVICIOS PASTORALES

Hasta ahora sólo se dan las Misas. En adelante, se pone en conocimiento de todos los fieles que lo deseen que pueden contar también con los otros servicios que les prestan sus Parroquias: Bautizos, Primeras Comuniones, Bodas, Funerales, asistencia a enfermos, etc., así como las catequesis familiares preparatorias a estos Sacramentos, conforme lo requiere hoy la Pastoral de la Iglesia.

B) UNA MAYOR INTEGRACION EN LA PASTORAL DIOCESANA

Hasta ahora esta Pastoral la están ejerciendo unos sacerdotes que están dedicados a otras muchas tareas postólicas. Desde ahora este servicio va a correr a cargo de la Vicaría de Pastoral, que se responsabilizará directamente, a través del Delegado de Zona vascoparlante, quien pondrá al servicio de los fieles los sacerdotes que requiere esta Pastoral más amplia.

Para el buen funcionamiento de toda esta Pastoral, se piensa en la creación de un equipo, formado de sacerdotes y seglares interesados en dicho servicio Pastoral.

Es preciso que formen parte de este equipo personas representativas de todos los sectores «euskaldunes» interesados en esta Pastoral. Se estudiará la forma de llegar a ello, a través de una adecuada consulta a los fieles. Mientras tanto, se designa una Junta provisional, que vaya resolviendo los problemas más urgentes.

Para toda clase de servicios que deseen solicitar, pueden llamar los fieles al teléfono 23 19 76, en donde les atenderá una secretaria todos los días, de 8 a 10 de la tarde. También pueden acudir personalmente a dicha Oficina-Despacho, sita en González Tablas, 6, 1.°.

Es de desear que este nuevo paso, importante, en esta Pastoral se aproveche en orden a una cada vez más auténtica comunidad de creyentes entre los «euskaldunes».

Pamplona, marzo de 1972.

El Delegado Episcopal de Zona Vascoparlante,

JUAN BAUTISTA IRAZOQUI

KONTU KONTARI

ARTZANORRA

Artzai txakurrari **«artzanorra»** esaten zitzaion garai batean. Orai ere artzanoa entzuten diegu Burundako artzai zaharrei. Ez ziren oraiko artzai txakurrak: haundiak, baketsuak, zintzoak. Artaldea nun, artzanoa han. Beti ardien inguruan edo ebein erdian.

Gaurko artzai txakurrak axeri kastakoak dira. Ibilkariak, argiak, bizlak. Bi ta hiru gizon baino gehiago da bakoitza ardiak larratzen. Haiek ez zuten lana hori egiten: ardiak zaindu bakarrik, otsorik edo lapurrik balitz.

Artzai batek ba omen zuen zakur hoietako zoragarria. Nagusia gauaz etxera etorri eta artzanoak kasu egiten zien ardiei. Biramonean artirin goixoakin egiten zion orea eta kitto. Hori zen txakurraren janaria.

Goiz batez, badijoa nagusia eta txakurra atera zaio bidera. Aurreraxago etxeko bi edo hiru ardi hilak. Asarratu da gizona eta uste izan du etxeko txakurrak bota dituela. Deitu ta, suturik, artzanorra hil du. Egun hartako odol galztoa eginik ba dijoa txabola aldera artzaia eta ezin sinestu du begiak ikusten dutena: otsoa Urbasan hila. Artzanoraren lana izan zen, eta biziarekin ordaindu zion nagusiak bere ekintza.

Bi besoak jaso ta sartzen omen ziren etxeko cordiren bat ikutzen zuen gizonarengana. Eta ardi galdurik balin bazen, haiek ardiarekin. Askotan esker txarra berenganatzeko...

SAGI